PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Loitiko Gaineko Memoriagunea

Loitiko Gaineko Memoriagunea
Irunberritik gertu dago, Nafarroan.
Memorial honek
Loiti, isilpeko hilerria du izena.



Mapa honetan kolore gorrian
Irunberriko eskualdea non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko uztaila eta abendua bitartean
frankistek Loitiko Gainean
69 pertsona baino gehiago hil zituzten.
Pertsona hauek frankismoaren aurka zeuden
taldeen kideak zirelako hil zituzten.

Frankistek pertsona hauek
ondorengo herrietan hil zituzten:

- Abintzano
- Lekaun
- Sengaritz
- Izko
- Aldunate
- Nardoze

- Mugetaxarra
- Tabar

Hil zituzten pertsonak
Nafarroako hainbat herrietakoak ziren:

- Oibar
- Andosilla
- Burlata
- Carcar
- Kaseda
- Galipentzu
- Izaba
- Irunberri
- Argako Miranda
- Zangoza
- Urraulbeti
- Sos del Rey Catolico.
  Aragoin dago baina Nafarroatik oso gertu.

Hil zituzten pertsonen senideek
hainbat desobiratze egin zituzten
desobiratze goiztiarren garaian.
Desobiratze goiztiarrak Nafarroan
1980. urtea baino lehen
egin ziren desobiratzeak dira.

1978. urtean Aldunate herrian
desobiratze goiztiar bat egin zuten
eta 1979. urtean
desobiratzeak egin zituzten
Lekaunen eta Sengaritzen.

2019. urtean Zangozako Udalak,
beste udal batzuek eta memoria historikoaren elkarteek
memorial bat jarri zuten Loitin.
Memorialak Loiti, isilpeko hilerria du izena.
Memorial hau
frankismoaren biktima guztiei egindako
omenaldi bat da.

Hemen Loiti, isilpeko hilerria memorialaren
argazki bat ikus dezakezu:

